



F T I Antzerkiola Imaginarioa
Egilea: Jon Gerediaga
Zuzendaria: Ander Lipus
Ekoizpena: ArteDrama
info@artedrama.com

Banaketa: Larrua creaciones
Pío Ortiz de Pinedo
info@larrua.net
(+34) 669 266 146

INDIZEA

1.-BABILONIAKO LOREAK. Talde Artistikoa

2.-BABILONIAKO LOREAK. SARRERA.

3.-BABILONIAKO LOREAK, ARGUMENTUAREN SINOPSIA.

3.1 Sinopsia

3.2 kantu bat Babilonia madarikatuan.

3.3 Abiapuntu poetiko bat.

3.4 Babiloniatik gure herrira

3.5 Gaiak

4.-BABILONIAKO LOREAK. TRATAMENDU DRAMATURGIKOA.

4.1 Egoera dramatiko orokorra

4.2 Espazioaren poetika.

4.3 Pertsonaiak.

4.4 Estructura dramatikoa.

4.5 Kontrasteak. Leiha.

4.6 Azken Oharrak

4.7 Testua eta dramaturgiak.

1. FITXA TEKNIKO ETA ARTISTIKOA

AKTOREAK

Ander Lipus

Espe López

Miren Gaztañaga

Mirian K. Martxante

Alex Gerediaga

| | |
|--------------------------|---|
| TESTUA: | Jon Gerediaga |
| MUSIKA: | Xabi Erkizia |
| ARGIZTAPEN DISEINUA: | Oier Ituarte |
| ARGIZTAPENA ETA SOINUA: | PCes de colores |
| JANTZIEN DISEINUA ETA | |
| ERREALIZAZIOA: | Miren Lore Garmendia |
| ARGAZKIAK: | Ainhoa Resano |
| ESKENOGRAFIA: | Jose Pablo Arriaga |
| MAKILAIA: | Cinthia Ioli |
| DISEINU GRAFIKOA: | Ainhoa Resano |
| ZUZENDARI LAGUNTZAILEAK: | Ainara Gurrutxaga & Urko Redondo (Dejabu) |
| EKOIZPENA: | ArteDrama |
| KUDEAKETA: | Xabino Alkorta |
| DISTRIBUZIOA: | Pio Ortiz de Pinedo – Larrua creaciones |
| KONPAINIA: | F.T.I. Antzerkiola Imaginarioa |
| ZUZENDAIA: | Ander Lipus |

2.-BABILONIAKO LOREAK. SARRERA.

Babilonia, behe Mesopotamiako hiririk handiena eta entzutetsuena izan zen. Babiloniako estatuko hiriburua. Erresumen lorea. *Bab-ilu* hitz semitatik dator bere izena. Bere esanahia: “Jainkoaren atea”. Behinola, gizadiaren urguilu, lurraren zilbor, edeneko lorategi basamortuaren erdian, jainkoari desafio egin zion gizadiaren erakusgarri izan zen ziutate handi hau. Baina azkenean, jainkoen amorrua eta madarikazioa ezagutu zituen Babilonia Handiak.

Jainkoa harrapatzeko eraikia, “Jainkoaren atea” izateko egina, gizadiaren handinahia erruz ordaindu zuen Babiloniak. Jainkotik urrun, urrunegi sortu eta erori zen Babilonia. Zer gertatu ote zen han ernaturiko lore zoragarriekin? Horiek ere jainkotik urrun sortu, bizi eta hil ote ziren?

Agian Babilonia ez dago gugandik pentsa bezain urrun. Gaur eta hemen ere bizirik diraute Babiloniaren mitologiak eta poetikak. Zilegia da gure zibilizazioan negar egitea, baina lan ugari daukagu negar ugari egin ostean. Hitzegin dezagun gure Babiloniari buruz, baina ez ditzagun inolaz ere ahaz Babiloniako Loreak.

3.-BABILONIAKO LOREAK, ARGUMENTUAREN SINOPSIA.

3.1 Sinopsia

Hegoak gogora ekartzen ditu bere amuma Inesen azken egunak, kantu bat altxatuz Babilonia madarikatuan.

3.2 kantu bat Babilonia madarikatuan.

T. Adornok esan zuen ezin zela poesiarik idatzi Auschwitz ostean. Agian egia izango da, ez gaitu historiaren sarraskien erruak utziko kantu ttipietan ibiltzen gudu zelaien hautsean. Akaso labe makabro haien biktimentzat soilik zilegia izan liteke poesia idaztea. Hildakoek soilik hitzegin dezakete hildakoez. Gu ez ginen Auschwitz izan. Baina alda dezagun metafora, alda dezagun antiutopia: har ditzagun Babiloniako gizakien amets handiak. Jainkoen etxera heltzeko gogo aseezin hura. Gauza jakina da: gizadiaren handinahiaren ondorioa jainkoen amorru eta madarikazioa izan zen. Hona hemen galdera: ez ote da gaur eguneko zibilizazioaren eredu handinahi horren jarraipena? Ez ote gabilta (gu, gizakiok) iragan hurruneako akats eta handinahikeriak behin eta berriz errepikatzen? Esan nahi da: amaitu al da Babilonia? Edo bortitzago (eta barkatu hiperbolea): ez al gaude oraindik guk geuk sortutako Auschwitz edo Babilonia eraldatu eta diplomatikoago baten harresien artean, munduko jainkoetatik urrun?

Ez dugu esaldi eta galdera agian ezkorregi hauekin geure gizarte edo zibilizazioaren kritika suntsitzaile hutsean geratu nahi. Hiperbole hauek poesia idazteko, kantuka ibiltzeko zilegitasuna berrezkuratzea baino ez dute nahi. Posible da gaur egun poesia idaztea. Zilegia da. Gu ere gure biktimak garelako. Gure handinahikeriaren, gure amets utopikoen biktimak. Gizadiaren historiaz haraindi badago objektu poetikorik. Beharrezkoa da gaur kantu bat altxatzea. Are gehiago: ezinbestekoa iruditzen zaigu iraganeko eta eguneko Babiloniako loreei buruz hitzegitea.

Lurreko humus ustel eta beltzenez ernatzen dira lorerik ederrenak.

3.3 Abiapuntu poetiko bat.

BESTE KANTU BAT NAHIZ ETA AUSCHWITZ

Zergatik ez nion ba itsasoari esango
izadiari emango naizenaren ahotsa
harresiak jasotzean belardien gainean
hodeiekin nahastean haragiaren kea
unaman ito zen koblakarien boza
baina harreziez haraindi
hodeietan barrena
kantu eske zirauen munduaren bihotzak
historiaren gaua esna eman zuen haurrak
ez egotzi niri sarraskiaren lotsa
iheslari naiz, bai, hezurrezko kaiolan
kantuka nabil gudu zelaien hautsean
baina ezinbesteko gudan
zauriaren ertzean
xerkatzen ari naiz zentzuaren zantzua
ez nazatela bila borroroen azokan
ez nauzue entzungo kalakarien ferian
isil-isilik noa deitzen nauen habira
aditzera joan naiz ahaztuaren hotsa
eta arrakalen altzoan
zeruari begira
ozen entzun nahi dut isilaren otoitza
sekulan isilduko ez denaren kantua.

3.4 Babiloniatik gure herrira

Saiatuko gara handinahikeririk gabe jorratzen handinahikeriaren aje eta loreei buruzko antzezlan hau. Ez dugu zertan iragan urrunera edota munduko bazter urrunenetara jo behar istorio hau kontatzeko. Babiloniaren eredia abiapuntu poetikotzat hartu eta gure inguruan bilatuko ditugu metafora edo abiapuntu poetiko horren adibideak. Poesia ekintza bihurtu. Poesia dramatizatu. Eta poesiaren arketipo urrunak gure herri, gure hiri, gure zibilizaziora ekarri.

Badira gure artean oraindik bi mundu –gutxienez- denbora eta espazio berdina konpartitzen. Alde batetik, zibilizazio handi, globalizatu eta poteretsu baten parte gara. Mendebaldeko handinahikeri eta harrotasunaren partaide. Bestetik, gure hiri eta, batez ere, gure herrietan, bizi dira oraindik mundu zahar baten memoria hankadunak. Gure zuhaitz, sendabelar, kondaira zahar eta mitologia are zaharragoak ezagutzen dituzten azkenengo amumak. Agian munduaren jainkotik aldentzen doan munduaz ari garela esan genezake, baina agian egokiagoa litzateke gure amumen jainkoa eta gaur eguneko zibilizazioak gurtzen duena, jainko ezberdinak direla esatea. Behatoki pribilegiatua da gurea, mundu eta jainko ezberdin hauen talka ikusi eta kontatzeko.

Baina naturalismo eta panfleto sozio-politiko guztietatik aldentzeko asmoz, Babiloniako Loreak antzezlanaren tratamendu poetikoa egin eta obrak islatu nahi duen errealitate hurbila errealitate sinboliko bihurtzeko asmoa daukagu. Horretarako gure herriko hainbat errealitate, izaki edo ikuspegi abiapuntutzat hartuz, arketipo bihurtuko ditugu eta errealitate sinboliko batera eramán.

Saiatuko gara handinahikeririk gabe jorratzen handinahikeriaren aje eta loreei buruzko antzezlan hau. Ez dugu zertan iragan urrunera edota munduko bazter urrunenetara jo behar istorio hau kontatzeko. Babiloniaren eredia abiapuntu poetikotzat hartu eta gure inguruan bilatuko ditugu metafora edo abiapuntu poetiko horren adibideak. Poesia ekintza bihurtu. Poesia dramatizatu. Eta poesiaren arketipo urrunak gure herri, gure hiri, gure zibilizaziora ekarri.

Badira gure artean oraindik bi mundu –gutxienez- denbora eta espazio berdina konpartitzen. Alde batetik, zibilizazio handi, globalizatu eta poteretsu baten parte gara. Mendebaldeko handinahikeri eta harrotasunaren partaide. Bestetik, gure hiri eta, batez ere, gure herrietan, bizi dira oraindik mundu zahar baten memoria hankadunak. Gure zuhaitz, sendabelar, kondaira zahar eta mitologia are zaharragoak ezagutzen dituzten azkenengo amumak. Agian munduaren jainkotik aldentzen doan munduaz ari garela esan genezake, baina agian egokiagoa litzateke gure amumen jainkoa eta gaur eguneko zibilizazioak gurtzen duena, jainko ezberdinak direla esatea. Behatoki pribilegiatua da gurea, mundu eta jainko ezberdin hauen talka ikusi eta kontatzeko.

Baina naturalismo eta panfleto sozio-politiko guztietatik aldentzeko asmoz, Babiloniako Loreak antzezlanaren tratamendu poetikoa egin eta obrak islatu nahi duen errealitate hurbila errealitate sinboliko bihurtzeko asmoa daukagu. Horretarako gure herriko hainbat errealitate, izaki edo ikuspegi abiapuntutzat hartuz, arketipo bihurtuko ditugu eta errealitate sinboliko batera eramán.

3.5 Gaiak

Obraren mamiari dagokionez, besteak beste, lau gai nagusi jorratuko dira.

Heriotza: Edozein tragediak patuaren kontrako borroka planteatzen duen bezela, obra honen ildoa pertsonai nagusiaren heriotzaren hurbiltasunak markatzen du. Hegoaren begietatik, Inesen azken egunak agertuko zazikigu oholtza gainean. Hortaz, heriotzaren presentziak eta irudikapenak berebiziko garrantzia izango dute antzezlanean.

Kantua: R.M. Rilkek berriztu zuen Orfeoren eredia jarraituz, heriotzaren aurrean edota Babilonia garaikide baten antiutopiaren erdian ere, zilegia eta beharrezkoa da kantua bat altxatzea. Hegoaren pertsonaiak gidatuko du, batez ere eta besteak beste, antzezlanaren aldarte honetarantz.

Mundu ezberdinak, Jainko ezberdinak: Gure zibilizazioan, denbora eta espazio berdinean, jainko edo idolo ezberdinak gurtzen ari dira. Inesek bilatzen duen jainkoa eta beste pertsonai arketipiko batzuek gurtzen dutena ezberdinak dira erabat. “Jainko” hitza, errealitate bezala baino, metafora moduan tratatuko dugu antzezlanean, metafora horren adiera ezberdin batzuk erabiliz.

Herria, Babilonia: Iraganeko edo orainaldiko, urruneko edo gertuko herri baten gaitz, inbidia, hutsune, borroka, min, fede eta loreak irudikatuko dira.

4.-BABILONIAKO LOREAK. TRATAMENDU DRAMATURGIKOA.

4.1 Egoera dramatiko orokorra

Hegoak kontzertu bat eman behar du. Kontzertua baino lehen, bere amuma Inesi azken agurra eman behar izan dio. Nahitanahiez, amumaren azken egunak etortzen zaizkio burura eta ikusleari berak imajinatzen eta oroitzen duena kontatzen dio. Amorruez, pozez, tristeziak, maitasunez...eta guztia kantu bihurtzen du.

4.2 Espazioaren poetika.

Espazioaren antolakuntza fisikoak bi muturren arteko kontrasteak utziko ditu agerian. Ezkerraldean, Hegoaren mundua. Eskumaldean Inesena.

Hegoaren espazioak gaur eguneko edozein musika taldek beharko lukeen itxura eukiko du. Instrumentuak, mikrofonoa, monitoreak, etabar.

Inesen mundu sinbolikoan, ohe bat bere izarekin, gurutzea, maleta ohe azpian, loreak eta landareak, eta bata eta kaleko arropa esekitzeko aulkia.

Espazioak markatzen duen poetikari dagokionez, pertsonai guztiak euren jainkoa harrapatu, gurtu edota bilatzera etorri dira espaziora.

4.3 Pertsonaiak.

- HEGOA** Gaur egungo 25 urteko neska gaztea. Dramaren narrazio zuzena bere esku dago. Bere amuma Inesen azken egunak gogora ekarriko ditu, publikoarekin komunikazio zuzena eta kantuak tartekatuz. Bere ekintzetan hiru jarrera antzematen dira. Lehenengoa, alde poetikoa (kantua/abestia); bigarrena, alde narratibo/deskriptiboa eta hirugarren eta azkena Inesen azken egunen errepresentazioan ematen dena. Orfeok egin zuen modura Euridice galdu ostean, bere helburua Inesi eta publikoari kantu bat eskeintzea da.
- INES** 75 urte. Hegoaren amuma. Gure amuma. Bizitzeko esperantza galduz joan da bere azken egunetara iritsi arte. Hegoaren ihesa beste herrialde batera eragin zuzena izan zuen bere norabidearen galeran. Hilik dago. Oholtza gainean bere azken egunen oroimena agertuko da, Hegoaren ikuspegitik. Bere ingurura hurbiltzen diren pertsonai gehienek itolarria sortarazten diote. Bere jainkoa izaditik gertu dago. Inguruko munduarena aldiz, ez horrenbeste. Bere helburua jainkoa berriz ere aurkitzea da.
- NIKOSIA** Cáceres-ko Santibáñez el Alto-n jaitako 50 urteko emakumea. Ines-en lagunmina. Ines zaintzen du. Serora antzekoa. Denbora txarra egiten duela eta arduraz betea. Inesen mirabe erdalduna. Bere helburua Ines azken unerarte zaintzea da.

ARKETIPO ZUZENAK

WITZ Apaiza. Erlijio ofizialaren islada. Faltsukeria eta intelijentzia praktikoaren aita sasi-izpirituala. Latina eta Frantseza menperatzen dituen linguista zurruna. Jatun aseezina. Infernuko kontseiluan parte hartu izandakoa. Egun, Shylock Funeraria (SF†) enpresa erraldoiarentzat egiten du lan.

AXPE Politikaria eta legegizona. Boterearen arketipoa. Inesen azken botoa, bere lurren oinordetza eta bere dirua baino ez ditu nahi. SF†-ko zerbitzaria.

KOPLA Medikua. Zibilizazio zientifikoaren ordezkaria. Dena sendatu nahi eta ezer sendatzen ez duena. Arnas estu eta patetiko dakar. Bizi gabe bizi da, egunero gaisotasun berri bat pairatzen. SF†-rako egiten du lan, baina berak ez daki.

ARKETIPO OKERRAK

BO Herriko enterradorea. Ahomotela. Bufoiaren arketipoa. Jadanik beldurrik ematen ez duen deabru eroria. SF†-ko enplegaturik zahar eta baxuena, honezkero enpresako sekretu eta zulo guztiak ezagutzen dituen.

ESKE Zamaltzain beltza. Zazpigarren zaldia izatera behartua baina nekeak jota dagoena. Inesen eldarnioen protagonista. Jainko zahar baten arima nekatua. Bere balio eskasak SF† enpresaren interesetatik salbu uzten du.

4.4 Estructura dramatiko.

Hemen aurkezten dizuegun eskema behin-behinekoa da. Obra honek sei atal edo ekintza ditu: Hitzazurre bat, lau kapitulo eta epilogo bat. Orotara 36 eszenek osatuko dute antzezlan.

4.5 Kontrasteak. Leia.

INESEN MUNDUA

Tesis

Atzo

Hitz herrikoia

Norbere bihotzari zuzendua

Espazio intimoa

Errepresentazioaren denbora

Sinbolikoa

HEGOAREN MUNDUA

Antitesis

Gaur

Hitz poetikoa

Publikoaren bihotzari zuzendua

Espazio publikoa

Ekintzaren denbora

Zuzena

4.6 Testua eta dramaturgiak.

Estruktura dramatikoak bi munduen arteko leiha eta inplikazioa lortzea du helburu. Hona hemen, modu eskematikoan, bi mutur hauen ezaugarri batzuk:

Nahiz eta antzezlan honen abiapuntua testu edota ideia poetikoak izan, horiek guztiak ekintza bilakatzeko bidean talde-lana izango da nagusi. Antzerkiola Imaginarioak ohiko duen lan metodoari jarraiki, dramaturgia ezberdinek gauzatuko dute antzezlanaren azkeneko bertsioa. Espazioaren diseinua, argiztapena, aktoreen lana, zuzendariaren begirada orokor eta zehatza, jantzien poetika, etabarrak, elkarlanean arituko dira antzezlanaren azkeneko bertsioa osatu ahal izateko. Testua izango da oraingo honetan lehenbizi bukatuko den lanabes dramatikoak, baina horrek ez du esan nahi geroago, beste dramaturgia guztiak parte hartzean sormen prosezuan, testu horrek eraldaketarik jasoko ez duenik. Testua, obra estreinatzen den egunean ere ez da itxita egongo, eta emanaldiak aurrera egin ahala, borobiltze eta egokitze lanek jarraituko dute. Testua lanabes bizia bezala ulertzen dugu Antzerkiolan, eta nahiz eta proiektu hau idazten duena izan testugintzaren arduradun eta egile nagusia, talde osoaren parte hartzea ezinbestekoa da antzezlanaren gure metodologia eta interesetara egokitu ahal izateko.

4.7 Azken Oharrak

Gure antzezlanak gauzatzera eramaten gaituena intuizioa eta intuizioak eragiten digun zirrarara dira. Horretarako, momentu bakoitzean bizitzen ari garenaren hausnarketa egin eta gure aldarte eta pentsamenduen ikerketa burutzen dugu. Gu ez garen deus ere ez dugu sekulan idatzi edo antzeztu.

Antzerkigintzak herriarekin duen konpromezua agerian jarri behar dugu, baina panfleto sozio-politiko, edota hizkuntza zurrun eta hertsietatik urrunduz. Horretarako, *Babiloniako Loreak* antzezlanaren tratamendu poetikoa egingo dugu, obrak isla dezakeen errealitate hurbil eta herrikoia, lengoia sinboliko eta hedagarri bihurtuz.

Testua ez ezik, Antzerkiolaren antzezlanetan parte hartzen duten lanabes dramatiko guzti guztiak gure taldekideen lanean izaten dute jatorria. Hortaz, gure obra guztiak orijinalak dira eta euskal antzerkigintzaren sormen lana hasiera hasieratik bultzatzeko xedea gauzatzen ari garelakoan gaude.

Bestalde, *Babiloniako Loreak* antzezlana, ez da dramagile batek isolaturik egiten duen lana, baizik eta antzerki talde profesional baten babespean egindakoa. Beraz, testu hau gauzatu ostean, testua estatuko edota nazioarteko antzokietan antzezteko aukera asko dago. Halaxe gertatu da proiektu hau idazten ari denak idatzi dituen antzezlan guztiekin eta *Babiloniako Loreak* ez du zertan salbuespena izan behar.